

## FRANCISCA DE ACULODI

### Sariaren VI Edizioa

Genero ikuspegia UPV/EHUko Gradu amaierako lanetan barne hartzearen FRANCISCA DE ACULODI Sariaren VI. Edizioaren —2018/2019 ikasturtea— Zientziak jakintza adarraren epaimahaia bildu da, eta deialdi honetan honako Gradu hauetako aurkezturiko lana aztertu ondoren, epaimahaiak saria honako lan honi ematea erabaki du:

Euskaraz:

### **LGBTI+FOBIAREN INGURUKO HEZKUNTZA-TAILER BAT SORTZEKO LAN BIOLOGIKOA**

Gaztelaniaz:

### **Hutsik**

Deialdiaren 3. puntua betetzeko

“Epaimahaiak 2020ko otsailaren 14a baino lehen argitaratuko du deialdiaren emaitza <https://www.ehu.es/eu/web/berdintasuna-direccionparalaigualdad/-/francisca-de-aculodi-vi-edizioa> web orrian, honako hauen berri emanez: irabazlearen izena, tutorearen izena eta Saila, zein Gradu eta ikastegikoa den, eta saritutako lanaren edo lanen laburpena”.

Euskaraz eginiko lanaren Irabazlea:

**Maite González Lugo**

Biologia gradua (Zientzia eta Teknologia Fakultatea)

Tutorea: Carmen Manzano Basabe

## **LGBTI+FOBIAREN INGURUKO HEZKUNTZA-TAILER BAT SORTZEKO LAN BIOLOGIKOA**

### LABURPENA:

Azken urteotan, LGBTI+ kolektiboak ikusgarritasuna irabazi du. Hala ere, gaur egun oraindik 72 herrialdetan homosexualitatea delitua da eta 8 -tan heriotza zigorra ezartzen da. Espainiar estatuari dagokionez, probintzia guztietatik, Bizkaia da sexu orientazioaren eta sexu identitatearen aurkako eraso gehien dituen hirugarrena, aurretik Madril eta Bartzelona egonik. Gainera, azken 20 urteetan LGBTI+ kolektiboari zuzendutako gorroto-delituak igo egin dira Estatu mailan. Honek pentsatzera eraman gaitzake arazoaren fokalizazioa agian ez dela egokia. Hau da, LGBTI+ gaia alor psiko-sozio-kultural batetik soilik landu beharrean, alor biologikotik ere landu beharko litzatekeela. Izan ere, indibiduo sozialaz gain biologikoak ere bagara. Hori dela eta, lan honetan LGBTI+ gaiaren inguruko ikerketa biologikoetan landutakoa bilduko da. Material hori oinarritzat hartuta, LGBTI+fobia lantzeko hezkuntza-tailer bat proposatuko da ere.

Gai honen inguruko orain arteko ikerketetan, genetikak sexu orientazioan eta genero identitatean parte-hartu dezakeela proposatzen da. Honi, epigenetikak duen eragina ere gehitzen zaio, batez ere umetokiko inguruneari dagokiola. Honi lotuta, hormona antolatzaileek animalion garunean zein sexu portaeretan duten eragina aipatzen da. Bide honetatik ere, indibiduo bakoitzean 3 sexu desberdinu daitezkeela esaten da: kromosomikoa, gonadala eta garunekoa. Hauek garapen bidean aldi desberdinetan garatzen direnez, proposatzen da ez dutela zertan bat etorri behar. Hau da, "gorputz bat genero bat" dogma zalantzan jartzen da. Gainera, eboluzioan mantendu diren jarrerak izanik, marko ebolutiboaren barruan mekanismo adaptatzaile orokortzat proposatzen dira ere. Orokorrean, sexu orientazioa eta genero identitatea gene-sare konplexu baten ondoriozkoa izan daitezkeela proposatzen da, faktore ez genetikoak ere parte hartuko dutelarik.